



OHIKO ERROREAK - SINADURA

1.- Sistemak CN bera duten hainbat ziurtagiri hauteman ditu

Egiazta ezazu ez dituzula middlewarearen bi bertsioak instalatuta, edo aurreko middlewarearen bertsioak behar bezala desinstalatu ez direla.

Honako errore hau ematen du: "Sistemak CN bera duten hainbat ziurtagiri hauteman ditu"

Atera ezazu txartela irakurgailutik.

Sartu Tresnak → Aukerak → Edukia

Pertsonala edo Beste pertsona batzuk fitxan agertzen bada, **ezabatu egin behar dugu**.


Nabigatzailea itxi, eta berriro sartu, nabigatzaileak ziurtagiria behar bezala ezagutzen duela egiaztatuta.

Nabigatzaileak ziurtagiri pertsonalen biltegian ezagutu beharko du ziurtagiria.

Egiaztatzeko, Internet Explorer-etik:

Tresnak → Internet aukerak menuko aukeratik sartzen da.

Hautatu Edukia fitxa, eta egin klik Ziurtagiriak botoiaren gainean. Honako leihoaren gisako leihoa erakutsiko da:





2.- Applet Id@zki, ezin da sinadura sortu: Private key in keystore SunMSCAPI... IS NULL

Ezin da sinadura sortu: Private key in keystore SunMSCAPI for alias CERTIFICADO PRUEBA IZENPE - 77610869 is null.

Egiazta ezazu ziurtagiria ziurtagirien biltegi pertsonalean eta ez beste pertsona batzuen atalean, harekin sinatzen saiatzen denean errorea ematen baitu.

Tresnak → Aukerak → Edukia

Txartela irakurgailuaz kanpo egonik, ziurtagiria agertzen bada

Hauta ezazu ziurtagiri miatua **Kendu** aukerarekin.

Nabigatzailea itxi

Sar ezazu berriro txartela irakurgailuan, eta sar zaitez ziurtagiriak aukeraren bidez.

3.- Sinadura prozesatzen geratzen da

Sinatzean, ziurtagiriak hautatzeko leihoa agertzen ez bada eta sinadura-prozesua prozesatzen geratzen bada.



Berrazter ezazu Javaren konfigurazioa. Berrazter ezazu sinadurako Applet-aren deskarga. Berrazter ezazu zure nabigatzailearen osagarrien konfigurazioa.




Erabiltzailearen ziurtagirirako beharrezko instalazio-egiaztapena.

Sar zaitez *Pertsonala* fitxara bide honetatik:

Tresnak → Edukia → Ziurtagiriak (Internet Explorer)

Erabiltzailearen ziurtagiriak azaldu beharko du.



4.- Active X: CARICOM(80090019) errorea: gakoaren multzoa ez dago definituta

Sinadura-eragiketa egitean, eta sinadura-osagaia Active X bada.

Egiazta ezazu ziurtagiria ziurtagiriaren biltegi pertsonalean eta ez beste pertsona batzuen atalean, harekin sinatzen saiatzen denean errorea ematen baitu.

Tresnak → Aukerak → Edukia


Txartela irakurgailuaz kanpo egonik, ziurtagiria agertzen bada

Hauta ezazu ziurtagiri miatua **Kendu** aukerarekin.


Nabigatzailea itxi

Sar ezazu berriro txartela irakurgailuan, eta sar zaitez ziurtagiriak aukeraren bidez.

Hautatu ziurtagiria eta egin klik **Ikusi** aukeran, eta honako leihoaren gisako leiho bat zabalduko da:



Joan ziurtatze-bidea fitxara eta, bertan, ziurtatze-bidea agertu beharko da hiru mailatan: Izenpe, bitarteko CA eta azken ziurtagiria.



Hala izan ezean, ziurtagiri horren CA jaulkitzaileak instalatzea falta da, eta IZENPEren web-orritik instalatu beharko dira.